

/

Gida didaktikoa

HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II

**HARGINA
ETA LAMIA**

HARGINA ETA LAMIA

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

HELBURUAK:

Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazioa zein errealitatean oinarritutakoa egitea, lekuzko eta denborazko konektoreak baliatuz eta aditz-denbora egoki erabiliz. Eskolako eguneroko bizitzako egoeretan parte hartzea, ahozko hizkuntza erabiliz. Gaitasun metalinguistikoa garatzea.

EDUKIAK:

Jarrerak:

Begirunea.
Zuzentasuna.
Ordena.

PROZEDURAK:

A.AHOZKO TESTUAK ULERTZEA eta EKOIZTEA:

- a.Narrazioa: ipuin fantastikoa.
- b.Argudioa: Gelako eztabaidak / planifikazioa.
- c.Hitz-jolasak: asmakizunak.

B.AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEA:

- a.Narrazioa: ipuin fantastikoa.
- b.Elkarrizketa.
- c.Deskripzioa.

KONTZEPTUAK:

Narrazioari buruzkoak
Denbora une ezberdinak
Kausa eta ondorioa
Deskripzioari buruzkoak
 Pertsonaia
Koherentzia
Kohesio semantikoa
Aditz-kohesioa
Konexioa

Deklinabidea
Konektoreak
Puntuazioa
Intonazioa
Elementu ez-linguistikoak

JARDUERAK:

ULERTZEKO ETA EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

· Ikusi baino lehen, eman izenburua, erakutsi karatula eta bermatu hipotesiak egiten dituztela.

A. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK ULERTZEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

· Ikusi eta entzun ipuin osoa. Ikasleek erantzun diezaietela pertsonaiak zein diren, nolakoak diren, zer arazo zuten, nola konpondu den, zer egin zezaketen... galderei.

B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

· Egin ipuinaren sekuentzia, ahoz eta marrazkiz, antzerki-saioa prestatzeko: banatu pertsonaiak, egin dekoratuak, ahalegindu sortzen diren eztabaidak eta desadostasunak hitz eginez konpontzen.

· Bakarrizketa: harginak bere artean esaten dituenak.

· Elkarriketa: imitatu harginak lamiarekin izan duen elkarriketa.

· Planifikazioa: lanen eta erantzukizunen banaketa.

· Lanaren balorazioa.

C. HAUSNARKETA METALINGUISTIKOAREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK:

Ekintza hauek kompetentzia linguistikoa garatzeko tailerrean erabiltzekoak dira.

Koherentzia (anafora): Irakasleak testuaren honako zati hau arbelean idatzi eta irakurri ondoren, galdetu ondoko hau:

1.- Erregea.- Arazo handia dut. Errege naizenetik, hau dut larrialdirik zailena. Nire ahalmena gainditzen du.

Erregeak egiten dituen enuntziatuetan, edo elipsia dago edo anafora. Hitz egin horri buruz, ea zer ken daitekeen eta zer ez.

Eman aukera batzuk, ea konturatzen diren anaforaren eta elipsiaren arteko ezberdintasunaz.

Komentatu anaforaren eta elipsiaren funtzioa.

Erregea.- Arazo handia dut (nik). Errege naizenetik, (hau) dut larrialdirik zailena. Nire ahalmena gainditzen du (arazoak).

Kontatu Konnlaren ipuina ahalik eta hitz gutxien erabiliz. (Talde handietan. Batek hasiko du eta, nahi duenean, beste batek jarrai dezala esango du.)

Narrazioaren hari kronologikoa

HARGINA ETA LAMIA IPUINAREN HARI KRONOLOGIKOA.

1. Bideoan agertzen diren sekuentzia-zatien artetik, esan zein den gaizki ordenatua dagoena.

2. Aurkitu sekuentziari ez dagokiona.

3. Identifikatu ekintzarekin bat ez datorren testua.

4. IRAKASLEAK, HAUREN AHALMENAREN ARABERA, SEKUENTZIAREN UNE BATZUK AUKERATUKO DITU, HAURREK ORDENA DITZATEN.

1. Gizon baten lana harkaitzak zatitzea zen; hargina zen, alegia.

2. Harkaitz zenean, harginak zatitu zuenez gero, konturatu zen hargina indartsuena zela, eta lamiari lehengora itzultzeko eskatu zion.
3. Egunero, mendira abiatzen zen, eta harrobian jo eta ke aritzen zen.
4. Eguzkia erregea baino indartsuagoa zela iruditu zitzaion, eta eguzki izan nahi zuen.
5. Lana oso gogorra iruditzen zitzaion, eta lamiari errege bihur zezala eskatu zion.
6. Lamiak hargina eguzki bihurtu zuen, baina, hodeiak estali zuenez gero, harginak hodeia izan nahi zuen, eguzkia baino indartsuagoa iruditu baitzitzaion.
7. Hodeiak euria bota zuenean, urak dena eraman zuen, harkaitza izan ezik. Horrenbestez, harkaitz bihur zezala eskatu zion lamiari.

Narrazioaren hari logikoa: kausa / efektua erlazioak.

Eman desordenaturik honako gertakariak eta kausak, eta haurrek aukeratu behar dute zein den ondorio bakoitzeko kausa.

- Hargina izateari utzi nahi zion
- * indartsuena delako
- Hasieran, erregea izan nahi zuen
- * erregea baino indartsuagoa delako
- Ondoren, eguzkia izan nahi zuen
- * oso lan gogorra iruditzen zitzaiolako
- Geroago, hodeia izan nahi zuen
- * lamiari berriro hargin bihur zezala eskatu zion
- Baina, euria harkaitza mugitu ezin duenez gero
- * Hodeiak eguzkia estaltzen duelako
- Harginak harkaitza zatitzen duenez gero
- * Lamiari harkaitz bihur zezala eskatu zion
- Azkenean, hargina izan nahi zuen berriro
- * Hargina harkaitza baino indartsuagoa delako

ENUNTZIAZIOKO EGOERA.- Igorlea: Ni

Narrazioa: (Igorlea: pluraleko 1. pertsona, GU, eta aditz-formak)

Haur-talde batek ipuina ahoz kontatuko du: Eguzkia / hodeia / harkaitza / hargina izango balira bezala.

Hainbat eratako testuak:

1.- Bakarriketa:

Hargina.- Hau nekea! Hau zoritxarra nirea!

Hargina.- Ene madarikatua! Ez dut uste ni baino zoritxarrekoagorik badenik.

Hargina.- (Borra jaurtiz.) (Oihuka.) Ni bai madarikatua! Zergatik eman beharko dut bizitza osoa nekepean? Ez ote dago madarikazio honetatik alde egiterik?

2.- Antzeztu elkarrizketa-zati hau:

4.- Argudioa:

Eztabaidatu nor den haurren artean indartsuena. Zergatikoa azaldu behar dute.

5.- Jolastekoak

·Ea badakizun zer jartzen duen mezu hauetan:

(Jakiteko, ALDERANTZIZ IRAKURRI BEHAR DIRA).

· iteb nez ira irrim ate irri anigrah

·Asmakizunak:

·Hodeia: "Itsasoan edan eta baratzean pixa egiten duena"

·Haizea:

o "Sasira joan eta urratu"

o "Jateko baliorik ez eta bera gabe ezin bizi"

- Narrazioa: Sar zaitetz ondorengo web orrian, eta bila ezazu Katu azkarra eta arkumea:

. <http://www.teatroa.com/ipuinak/19katu.html>

Katu azkarra eta arkumea:

. <http://www.teatroa.com/ipuinak/19katu.html>

Norekin elkartu zen arkumea?

Katuak eta arkumeak nola beldurtu zituzten otsoak?

Azkenik, zein animalia ikaratu zuten?

Semantika

1.- Bila itzazu honako izenondoei dagozkien kontrakoak, eta idatz itzazu: hilezkor

-- iraunkor -- maitekor

2.- Bete ditzatela honako testu honen hutsuneak:

Hargina.- Eguzkia izan nahi.....

Lamia.- Hala izan!

Lamia.- Gezurra badirudi ere, berehala hasi zen eta hodei bihur nezan eskatu zidan.

Hodei zenean, haize hotza etorri zen eta hodeia uzkurtu zenez gero, euria hasi zuen.

Hemen duzu hutsuneetan sartu behar duzuna, baina kontuz! Bikote bakoitzetik bat aukeratu behar duzu.

Nuke/zenuke bedi/nadin lausenguka/protestaka zigun/zidan beroagatik/hotzagatik

2.4 GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

§	Karatula (minutu bat)
§	Ipuina (25/27 minutu)
§	Kredituak (minutu bat)

Gidoi literarioa:

HARGINA ETA LAMIA

IZENBURUA: Han eta hemengo ipuinak II :Hargina eta lamia

NESKA: Kontatuko didazu ipuin bat?

LAMIA: Bai... Gizon bat gogoratzen dut. Haren lana harkaitzak zatitzea zen; hargina zen, alegia. / (hamazazpian) Egunero, goizean goiz jaiki ondoren, erremintak hartu eta mendira abiatzen zen.

HARGINA: (AD LIB)

LAMIA:(OFF) (Hogeitamalauan) Harrobia mendiko harkaitzetan zegoen. / Eta han aritzen zen lanean jo eta ke.

HARGINA: (AD LIB)

LAMIA:(OFF) (Berrogeitamarrean) Dinbi-danba harkaitzak txikitzen zituen, gero harri zati horiekin etxeak-eta egiteko. Langile fina zen.

HARGINA: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Beti lanean ikusi izan dut: bere borra eta pikatxoia hartuta, batera eta bestera gelditu gabe. / Lehenengo harri zati handiak apurtzen zituen. Eta gero zati txikiagoak egiten zituen, itxura egokia eman arte.

HARGINA: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) (Hogeitamaikan) Mendiaren erdia-edo zatituko zuen behintzat!
HARGINA: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) (Hogeita hemeretzi) Gizon hura nekaezina zen.
HARGINA: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) (Berrogeita hamabian) Edo hala iruditu zitzaidan niri, protestaka hasi zen arte.
HARGINA: (AD LIB)
LAMIA:(OFF) (hiru-batean) Bai, bat-batean ernegatzen hasi zen ogibide gogorregia tokatu omen zitzaiolako.
HARGINA: (AD LIB)
HARGINA: (AD LIB) Hau nekea! Hau zoritxarra nirea! (AD LIB)
Ene madarikatua! Ez dut uste ni baino zoritxarrekoagorik badenik. (AD LIB) Ni bai madarikatua! Zergatik eman beharko dut bizitza osoa nekepean? Ez ote dago madarikazio honetatik alde egiterik? (AD LIB)
LAMIA: Borraz jo ez ninduenean! Ozta-ozta ibili zen!
NESKA:Ez da egia izango!
LAMIA: Bai. Ni kobazulotik irtetera nindoanean, borra nire muturren aurretik igaro zen, eta gero oihuak entzun nituen. Orduan borra hartu nuen eta ...
HARGINA: Zergatik niri, e? Jakin daiteke zergatik egokitu zaidan ogibide nazkagarri hau?
LAMIA: Eta jakin daiteke zer erru daukagun besteok? Kontu handiagoa izan jenio horrekin!
HARGINA: Sentitzen dut, ez nizun minik eman nahi.
LAMIA: Zorionez, ez didazu egin, baina gutxi falta izan zaizu. Tira, hargina, zergatik zauden horren goibel?
HARGINA: Zertarako jakin nahi duzu? (AD LIB) Laguntzerik izango bazenu behintzat! (AD LIB)
LAMIA: Atsegin handiz lagunduko nizuke, baina oraindik ez didazu esan zerk goibeltzen zaituen.
HARGINA: Nire zoritxarrak!
LAMIA: Ez zaude konforme duzun bizimoduarekin?
HARGINA: Ez, oso pobrea naiz!
LAMIA: Aberatsa izan nahiko zenuke?
HARGINA: Bai!
LAMIA: Ondo da. / Har ezazu hau, eta zoriontsu izan.
HARGINA: Oh, eskerrik asko. Mila esker! (AD LIB) **6:43**
LAMIA: Bere etxera joan zen, poz-pozik, nik emandako altxorarekin.
NESKA: Hura zori ona harginarena!
LAMIA: Ez dakit ba... berehala hasi zen-eta protestaka.
NESKA: E? Ez da izango!
LAMIA: Zoriontsu izango zela uste zuen, lan egin beharrik ez zuelako. (OFF) Baina diruarekin ez zuen nahikoa, eta boterea ere lortu nahi zuen. Bere etxera hurbildu nintzenean...
HARGINA: (AD LIB) Hau nazka! Zergatik niri? Hau bizimodua! (AD LIB)
LAMIA: Zer duzu orain? Ez zaude pozik?
HARGINA: Ez oso!
LAMIA: Ba, orain ez zara pobre.
HARGINA: Ez, hori egia da, dagoeneko ez naiz pobre. (AD LIB) Baina ez dut agintzen. Ez naiz boteretsua. Eee.. Erregea izan nahi nuke.
LAMIA: Hala izan bedi!
HARGINA: (AD LIB) O! Ene! Erregea naiz! (AD LIB) Urrezko koroa eta guzti! Mila esker! Orain bai! Boteretsua naiz! Neuk agintzen dut!... (BARREAK)
LAMIA: Eta pozez zoratzen gelditu zen.
NESKA: Ez da harritzekoa, nahi zuena egin zezakeen! (AD LIB)

LAMIA: Bai, oso pozik ibili zen. Baina, uda heldu arte bakarrik.

NESKA:(OFF) Zergatik?

HARGINA: (AD LIB)

LAMIA: Udan eguzkiak gogor jotzen duenez gero... erregea beroak kiskaltzen zegoelako bere jantzien erruz.

HARGINA: (AD LIB) Hau beroa! Alde hemendik, eguzki jauna! Ospa!

LAMIA: Baina, zer duzu orain? Ez zaude pozik, ala?

HARGINA: Ez horixe! Eguzki madarikatuak kiskali egiten nau! (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Jakina! Zer egin behar du ba eguzkiak udan? Baina gizon hura burugorra zen gero!

HARGINA: Nik, erregea naizen honek, sartzeko agintzen dizut!

LAMIA: (OFF) Eguzkiak, noski, ez zion jaramonik egin!

HARGINA: Nik uste nuen erregea baino ahaltsuagorik ez zegoela.

LAMIA: Ba, horretan ezin dizut lagundu.

HARGINA: Bai. / Eguzkia izan nahi nuke.

LAMIA: Tira ba... Hala izan bedi!

HARGINA: (BARREAK) Eguzkia naiz! Eguzkia naiz! Ni baino boteretsuagorik ez dago!

NESKA: Beraz, orain, eguzkia da!

LAMIA: Ez, ba! Gezurra badirudi ere, berehala hasi zen protestaka.

NESKA: Ene! Halakorik ere!

LAMIA: Hodeiak aurrean jarri zitzaizkion arte, pozik egon zen.

HARGINA: (BARREAK) (OFF) E? Baina... Alde hemendik! Ken zaitezte.

LAMIA: Baina alfer-alferrik, hodeiak ez baitziren kendu.

NESKA: (BARRETXOA) Badakit: orduan, hodei bihurtzeko eskatu zizun, ezta?

LAMIA: Horixe bera, hain zuzen.

HARGINA: Kaixo, eguzkia! Ez zara zuk uste bezain ahaltsua, e? (BARREAK) / Ze? Amorrugalanta ematen du... beste norbait aurrean jartzeak, ezta? / (AD LIB) Hau hotza! Uff! Ai! Ai! Ai! Uzkurtzen ari naiz! Ene! Zer da hau? 9:50

LAMIA: (OFF) Ekaitza hasi zen... eta euria barra-barra. / Euri-jasak uholdea sortu zuen. / Uholdeak harea, harriak, zuhaitzak... den?dena eraman zuen. / Eta atertu zuenean, han zegoen hodeia lurrari begira, aho bete hortz: ezin zuen sinetsi!

HARGINA: Baina, baina... nolatan...?

LAMIA: (OFF) Hondamendiaren erdian, harkaitza oraindik hantxe zegoen harro-harro.

HARGINA: Nola izan liteke? Zer dela eta ez du urak eraman? / Ene! Ai, ai, ai... (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Haizeak eraman zuen, mendi baten tontorrarekin talka egin zuen arte.

HARGINA: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Hantxe geratu zen, mendiko haitzetan trabatuta, ez aurrera ta ez atzera.

HARGINA: Eta orain zer? Harkaitz madarikatu bat ni baino ahaltsuagoa izango ote da ba? Aska nazazu, harkaitz madarikatua! Askatzeko esan dizut!

LAMIA: Hara non, harkaitz haixetan zegoen nire kobazuloa. Eta, oihuak entzun bezain laster, hargina zela ohartu eta irten egin nintzen.

LAMIA: (AD LIB) Zer duzu orain?

HARGINA: Zer dudan? Engainatu egiten nauzula! Nik ahaltsuena izan nahi nuen, eta ez nau ba harkaitz honek harrapatu?! (AD LIB) (OFF) Aska nazazu eta bihur (ON) nazazu harkaitz!

LAMIA: Ziur?

HARGINA: Zalantzarik gabe. Ez zara konturatu zeinen indartsua den? (OFF) Hodeiaren uraz ezin izan dut mugitu. (ON) Eta, hori gutxi ez dela, harrapatu egin nau.

LAMIA: Hala nahi baduzu... hala egin bedi!

HARGINA:(AD LIB)

LAMIA: Ea oraingoan bete-betean asmatu dudan eta zorionsua zaren!

HARGINA: Bai, ondo. (BARRETXOA) Orain indartsuena naiz. Iufala! Indartsuena naiz!
Bazen garaia! Tira, bultza, bultza egidazu; ikusiko duzu nola ezin nauzun mugitu.

11:45

LAMIA: Ondo baino hobeto dakizu ezetz.

HARGINA: Mmm! Nork esango zukeen harkaitz bat honen zoriontsu izan zitekeenik!

LAMIA: Pozten nau! Bueno, ni banoa sendabelarrak batzera. Gero arte!

HARGINA: (OFF) Bai, zoaz, zoaz! (ON) Gero arte!

HARGINA: (AD LIB) (BARRETXOA) (TXISTUKA)

LAMIA: (OFF) Eta hantxe gelditu zen gure laguna, harro-harro eta pozik, izaki eta gauza guztien artean ahaltzuena bera zelakoan.

HARGINA: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Baina, halako batean...

HARGINA: Ai, aiii! Hau mina! Aiiii! (AD LIB) E! Nor dabil nire atzean? Min ematen didazu gero!

HARGINABI: E?

HARGINA: Ai, aiii! Hau mina! Nor dabil hor?

HARGINA2: (AD LIB-AK) Nork hitz egin du?

HARGINA: Nik, memeloa! Min ematen didazu!

HARGINA2: E? Ene!

HARGINA: Zertan ari zara?

HARGINABI: Harriak ateratzen... E? E? Baina... Aaaa! Harkaitza sorginduta dago! Aaaa!
(AD LIB) (OFF)

HARGINA: Ama maitea! Hargina zen! Orain, zer eta hargina ni baino ahaltzuagoa izango ote da ba?

HARGINA: Aiiii! Aaaa! Ederra egin dut! Aiiii! Aaaa! Aiiii! Aaaa!

LAMIA: Arrantzaka hasi zen, eta haren oihuak mendian barrena zabaldu zirenez... (OFF)
joan egin behar izan nuen.

HARGINA: (AD LIB)

LAMIA: Berriro negarrez?

HARGINA: (AD LIB) Aiiii! Aaaa! Ederra egin dut! (AD LIB) Aiiii! Aaaa! Aiiii! Aaaa!

LAMIA: Arima irtengo zaizu, gizona!

13:39

HARGINA: (AD LIB) Aiiii! Aaaa! Nola ez naizen konturatu! (AD LIB) Aiiii! Aaaa! Aiiii!
Aaaa!

LAMIA: Ez esan ezer: zu baino ahaltzuagoa den bat ikusi duzu!

HARGINA: Bai, horixe, (AD LIB) eta badakizu nor zen? (AD LIB)

LAMIA: (AD LIB) Ideiarik ere ez.

HARGINA: Hargina! (AD LIB)

LAMIA: (BARREA) Ezin liteke izan! (BARREA)

HARGINA: Bai, hargina zen! (AD LIB)

LAMIA: Eta zergatik zaude goibel? Zuk ez zenuen hargina izan nahi!

HARGINA: Orain bai!

LAMIA: Ziur zaude?

HARGINA: Erabat! Bihur nazazu neure onera, berehala!

LAMIA: Et, et, et! Ez hain azkar!

HARGINA: (AD LIB) E? Zer? Neure onera itzultzeko eskatu dizut! Hargina izan nahi dut!
Hargina izan nahi dut!

LAMIA: Ez esan gero beste ezer izan nahi duzunik, e?

HARGINA: Ez horixe! Orain ondo dakit oker nengoela!

LAMIA: Baina zure lana oso nekagarria da. Ez zara damutuko?

HARGINA: Ez naiz damutuko, zin dagizut!

LAMIA: Eta bere onera itzuli nuen.

NESKA: Damutu al zen?

LAMIA: Nik dakidala, ez.

NESKA: Oso ipuin polita.

LAMIA: Zorion entzun duenarentzat, zorion kontatu duenarentzat.

HARGINA: (AD LIB)

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:
Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:
Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:
Macarena Sobrón
Noemí Sobrón
Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-02-19**

LEGE GORDAILUA: : SS-173/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**